

DIRU ITURRIAK

Gure PAM enpresaren helburuetako bat dirua lortzea da ekoiztutako produktuak salduz. Hau izango da gure enpresak dirua lortzeko iturri nagusia, nahiz eta beste modu batzuk erabiliz ere dirua lortuko dugun.

Bi diru-sarrera mota ezberdin daude: ordainketa errepikariak eta ordainketa bakarrekoak. Gure kasuan, bigarrena erabiliko dugu; hau da, pertsona batek gure ogiren bat erosterako garaian, une horretan ordainduko du eskudirutan edo kreditu-txartela erabiliaz, geroago ez du ezer gehiago ordaindu beharko.

Produktuen prezioa ezartzerakoan, kontuan hartu beharko dugu bezeroak zenbat ordaintzeko gai egongo dira gure zerbitzuen truke. Preziorik egokiena bilatzen saiatuko gara. Ogi mota ezberdinak salduko ditugunez, bakoitzak bere prezioa izango du: ogiak, ogi biribilak, haziak dituen ogiak, gatzik gabeko ogiak... horren arabera, prezioa garestitu edo merketu egingo da. Prezioak **finkoak** izango dira, merkatuaren arabera ez direlako aldatuko eta beti prezio berdina ordaindu beharko delako.

Gainera, prezioa zertxobait igo egingo da, etxez-etxe joango garelako ogiak banatzen eta horrek gastu extra bat suposatu egingo du. Izan ere, ez da asko garestituko bukaerako prezioa, zentimoren bat igoko da bakarrik.

Beste diru-iturri bat publizitatea izango da. Auzoetan gure enpresari buruz berri emango dugu, jendeak gure zerbitzua probatu ahal izateko. Dirua inbertituko dugu pankarta batzuk egiteko, eta nahiz eta diru asko gastatu honetan, etorkizunean irabazi egingo dugu, jende gehiago etorriko baita gure ogiak erostera.